

# 'Piztutako etxea' poema liburu baikorra aurkeztu du Juaristik

20 olerkiz osatuta dago idazlearen lan berria, nostalgiaz hitz egiten duena, eta Madrilen idatzi zuen

**DONOSTIA** – Pentsamenduaren poesia da, denborak sortutako nostalgia agertzen da *Piztutako etxea* poema liburuan. Felipe Juaristi (Azkoitia, 1957) kazetari eta idazleak aurkeztu berri du bere liburua, atzo Aldeta taldearen laguntzaz hiru olerki abestu zituelarik.

Guztira, 20 poesiek osatzen dute liburua, Ereinek argitaratua, eta hasieran giza pasioei buruzko saiakera bat izan behar zuen. "Poesiak hobeto islatzen zuela pentsatu nuen", adierazi zuen Juaristik eta azkenean, berak egin nahi zuen liburua egin zuela onartu zuen. Spinozaren presentzia garrantzitsua dago liburuan zehar, kazetari

azkoitiarraren aurreko lanean bezala, eta gogoetara bultzatzen du.

Lan hau burutu ahal izateko, Madrilera joan behar izan zuen eta olerki gehienak La casa encendida izeneko kafetegian idatzi zituen. "Distantzia behar nuen, gauza asko neuzkan buruan eta gertatutako guztia garbiago ikusteko, urrutira joan behar izan nuen", azaldu zuen. Gainera, horrela hizkuntza garbiago bat erabili zuela gehitu zuen, han ez zen euskaraz aritzen eta ez zion traizio egin nahi bere


**"Liburua irakurritakoan, azkenean esperantza gelditzen zaio irakurleari; poetak ez gara tristeak"**

**FELIPE JUARISTI**  
Poeta

hizkun-tzari. "Hori guztiaz gain, Madrilan anonimoa nintzen, beste bat gehiago, eta hori lagungarri izan zait hi-tzak ordenatzerako garaian", esan zuen.

Liburuari dagokionean, baikorra da, itxaropen sentsazio batekin uzten duena irakurlea. "Ez naiz esperantzaren aldekoa, baina kontraesan bat sortzen da liburuan, azkenean, esperantza gelditzen baita poesiak irakurri eta gero", aitortu zuen Juaristik. Hala ere, idazleak "pozaren aldeko apostua" egiten duela adierazi zuen, poeta guztiak tristeak direnaren mitoari aurre eginez. Bere liburuan izurik ez dagoela gaineratu zuen, "argia erakutsi" behar baita bere ustetan.

Horretaz gain, sentimenduekin distantzia mantentzen saiatu da. "Poesia ez da sentimentalismo hutsa: inguruan daukaguna islatu behar dugu, eta ez barnean sentitzen duguna bakarrik", adierazi zuen. - M.E.



Felipe Juaristi 'Piztutako etxea' poesia liburuarekin. Argazkia: Iker Azurmendi